

COMPLIANCE PENALEKO POLITIKA



AMPOn erabateko konpromisoa dugu alor guztietako bikaintasunarekin, baita gure erantzukizun etiko eta legalaren arloko bikaintasunarekin ere. Hori dela eta, adierazpen honen bidez, modu esplizituan eta irmotasunez aditzera eman nahi dugu “zero tolerantziaz” jardungo dugula edozein delituren aurrean, delitu oro debekatuz eta delitu ororen aurka irmo eginez. Kultura hori, beraz, gure enpresa-xedeetan eta gure jarduera osoan hedatu eta txertatuko dugu, nola Espainian, hala AMPO ezarrita dagoen beste edozein herrialdetan.

AMPOko kide guztiek, administratzaileak izan, bazkideak izan edo lantaldeko gainerako langileak izan —finkoak zein aldi baterakoak, halakorik balego—, politika honen eskakizunak bete beharko dituzte, baita politika hori betetzeko abian jarri dugun Compliance Penaleko sistema. Era berean, Etika Kodea, Jokabide Kodea eta prebentzio-kontrolak eta -prozedurak bete beharko dituzte.

Politika hau aplikatzekoa izango zaie, halaber, gurekin harremanetan dauden hirugarrenei; hortaz, behar bezala emango zaie politika honen berri, eta gure erakundearekin dituzten harremanetan hari atxikitzeko eta hura betetzeko eskatuko zaie. Horrez gain, politika hori edozein interesdunen esku jartzen dugu, egungo komunikazio publikorako bideetan (www.ampo.com).

Erakundeak zigorrek betetzeko ezarri duen sisteman, gure arrisku potentzialak zehaztu eta baloratu dira, eta arriskuak arintzeko eta kontrolatzeko neurriak ezarri dira. Neurri horiek behar bezala berrikusi eta monitorizatu beharko dira. Gainera, Compliance Penaleko organo bat jarriko da abian eta beharrezko baliabideez hornituko da, sistema diseinatzeaz, ezartzeaz, kudeatzeaz eta haren eraginkortasuna egiaztatzeaz arduradakin. Organo horrek ahalik eta independentzia, gaitasun eta aginterik handiena izango du, bere egitekoa behar bezala bete ahal izan dezan. Organo horren esku egongo da sistemaren jarraipena eta kontrola egitea, eta Organo horrek berrmatuko du sistema eraginkorra dela gure helburuak eta etengabeko hobekuntza lortzeko.

Politika honen mende dagoen pertsona orok nahitaez bete beharko du politika hau eta, gainera, atzeman dezakeen ez-betetzeen edo arrisku penalen edozein egintza edo jokabide susmagarriren berri eman beharko du. Xede horretarako erabilgarri dugun salaketa-kanalaren bidez, balizko ez-betetzeak jakinarazteaz gain, arlo horretako edozein alderdiri buruzko kotsultak eta zalantzak ere egin ahal izango dira. Kanal horren erabiltzaileak erabateko konfidentziasunez tratatuko dira, fede onez egindako erabileraren ondoriozko errepresaliarik egon ez dadin. Jasotako gaiak, bestalde, ezarritako barne-prozeduraren arabera bideratu eta kudeatuko dira.

Politika hori ez betetzeak eta hura hedatzen duen Compliance Penaleko Sistemaren eskakizunak ez betetzeak —bereziki gure Etika eta Jokabide Kodea ez betetzeak— barne-ondorioak eta/edo kanpo-ondorioak izan ditzake. Ondorio horiek aplikatu beharreko araudia errespetatuko dute eta gertaeren larritasunaren arabera izango dira, berdinak hartzaile guztientzat.

Hala jasoaraz dadin, sinatzen du Idiazabalen 2021eko maiatzaren 13an

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'Irastorza'.

Aritz Irastorza

Kontseilu Errektoreko Presidentea